

XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

266

AGINDUA, 2012ko abenduaren 14koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarena. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko ordezkarien erregistro elektronikoa araupetzen da, eta gaitutako funtzionarioen erregistroa sortu eta araupetzen da.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, ordezkari-tza kontzeptuaren definizio hau ematen du 32. artikuluan: jarduteko gaitasuna duen edozein pertsonak bere izenean jarduteko aukera hirugarrenengo pertsona baten esku uzteko ahalmena. Horretarako, gehienetan, beharrezkoa da ordezkari-tza ziurtatzea zuzenbidean balio duen eta sinesgarritasunez jasota utziko duen edozein bide baliatuz; edo, bestela interesduna bera bertaratu eta ordezkaria zein den esanez.

Era berean, ekainaren 20 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, herri-administrazioekiko harremanetan herritarrak ordezkatzeko zenbait modu zehazten ditu 22. eta 23. artikuluetan.

Otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak, Administrazio Elektronikoari buruzkoak, hirugarrenen izenean jarduteko mekanismoak aurreikusi ditu 12.etik 14.era arteko artikuluetan: lehenik, ordezkari-tzarako gaituntza ematea. Administrazioaren aurrean kudeaketa- eta ordezkari-tza-jarduerak etengabe eta modu profesionalean betetzeko sortu da batez ere gaituntza hori. Bigarrenik, pertsona interesdunek beren izenean administrazioaren aurrean jarduteko beste pertsoneri ematen dieten ordezkari-tza. Ordezkari-tza horrek ordezkarien erregistro elektronikoa jasota egon behar du ezinbestean. Azkenik, herritarrek ahaldundutako jarduketetan sinadura elektronikoa erabiltzeko gaituta dauden funtzionarioak.

Ordezkarien erregistro elektronikoa zerbitzu elektronikoa arrunt bat da, eta euskarria ematen die otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan, Administrazio Elektronikoari buruzkoan, araupetutako hiru ordezkari-tza-figuri. Erregistro hori ez da publikoa, eta ordezkari-tzarako gaitutako erakundeek nahiz pertsona interesdunek emandako ordezkari-tzak eta gaitutako funtzionarioak inskribatuko dira bertan.

Otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren, Administrazio Elektronikoari buruzkoaren, 13. eta 14. artikuluek hau ezartzen dute: batetik, Administrazio Elektronikoan eskumena duen sailaren agindu baten bidez arautuko dela ordezkarien erregistro elektronikoa funtzionamendua; eta bestetik, gaitutako funtzionarioen erregistroa sortu eta arautuko dela.

Azaldutakoa kontuan hartuta,

HAU XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren ordezkarien erregistro elektronikoa funtzionamendua araupetzea. Erregistro hori otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren, Administrazio Elektronikoari buruzkoaren, 13. artikulua bidez sortu zen.

2.– Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan gaitutako funtzionarioen erregistroa sortu eta araupetzen da agindu honen bidez.

2. artikulua.– Aplikazio-esparrua.

1.– Agindu hau esparru hauetan aplikatuko da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean, organismo autonomoetan, eta administrazio orokorrarekin lotutako edo administrazio orokorraren mendeko eskubide publikoko gainerako erakundeetan.

b) Eskubide pribatuko ente publikoetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kide diren gainerako erakundeetan, zuzenbide publikoarekin lotuta garatzen dituzten jardueretan.

c) Aurreko puntuetako erakundeekiko harremanetan nortasunik ez duten pertsona fisikoengan, juridikoengan eta enteetan.

2.– Agindu honen ondorioetarako, administraziozat hartzen dira artikuluko honen 1. paragrafoko a) eta b) puntuetan adierazitako organoak eta erakundeak.

3.– Agindu honen ondorioetarako, pertsonatzat hartzen dira artikuluko honen 1. paragrafoaren c) puntuan adierazitakoak.

3. artikulua.– Ordezkarien erregistro elektronikoan inskribatzea.

Hauek inskribatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioako ordezkarien erregistro elektronikoan:

a) Pertsonak hirugarrenei emandako ahalordeak edo ordezkaritza-ahalak, beren izenean administrazioaren aurrean baliabide elektronikoaren bidez jarduteko.

b) Ordezkaritzarako gaitutako pertsonak, administrazioarekin hitzarmen bat sinatu dutenak.

c) Pertsonak baimentzen dizkieten jarduketak identifikatzeko eta baimentzeko gaitutako funtzionarioak.

4. artikulua.– Hirugarren pertsonak ahalordetzea.

1.– Ezinbestean ziurtatu behar dute emandako ahala, administrazioarekin beren izenean baliabide elektronikoaren bidez jarduteko, beste pertsona batzuk ahalordetzen dituzten pertsonak, modu hauetako baten bidez:

a) Ahalorde-emailea administrazioa joanez.

Ahalorde-emailea pertsona juridiko bat bada, aurkezten den pertsonak ziurtatu behar du erakundearen lege-ordezkaritza duela edo behar adina ahal duela ahalordeak emateko.

b) Notarioak legez ziurtatutako sinadura duen dokumentu publiko bat edo dokumentu pribatu bat aurkeztuz administrazioan.

c) Internet bidez, otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan, Administrazio Elektronikoari buruzkoan, aurreikusitako identifikazio- eta baimentze-sistemetakoa bat erabiliz.

2.– a) eta b) puntuetako kasuetan, ordezkarien erregistro elektronikoan izena ematen duten datatik aurrera izango dute eragina ahalordeek. c) puntuko kasuan, erregistroko izen-ematea automatikoa izango da.

3.– Pertsona bakar bati emango zaio komunikazioak eta jakinarazpenak elektronikoki jasotzeko ahala.

4.– Ahalordearen onespén esplizitua eskatzen bada, ahalordeak ez du eraginik izango, harik eta ahalduak artikuluko honen 1. paragrafoa a), b) eta c) puntuetan deskribatutako moduetako batean onartzen duen arte.

5. artikulua.– Administrazioak gaitutako pertsonak.

1.– Hirugarrenak ordezkatzeko baimena izango duten pertsonak gai ditzake administrazioak, haien izenean zenbait izapidetze elektronikoki egin ditzaten.

2.– Gaikuntza hitzarmen baten bidez formalizatuko da. Hitzarmen horretan, zer izapidetzetan eta prozeduratan ordezkariak daitezkeen eta gaitutako pertsonak zein diren zehaztuko da. Ordezkariaren xede diren prozeduren ebazpenean eskumena duten organoek izenpetuko dituzte hitzarmen horiek, administrazio elektronikoko zuzendaritza eskudunak txostena egin ondoren.

3.– Jarduera bakoitzerako beharrezko ordezkariak izan beharko dute gaitutako pertsonak. Administrazioak edozein unetan eska dakieke ordezkariak egiaztatzen. Baliozkoa izango da Administrazioak onartutako dokumentu normalizatuen bidez emandako egiaztapenak ematea. Behar adina ordezkariak ez badu, erantzukizun egokiak eskatuko dira.

4.– Baimendutako funtzionarioek gaitutako pertsonak inskribatuko dituzte ordezkariaren erregistro elektronikokoan, eta azalduko dute zer izapidetzetan eta prozeduratan jardun dezaketen ordezkari gisa.

6. artikulua.– Gaitutako funtzionarioen erregistroa.

1.– Erregistro bat sortuko da, jakiteko administrazioak zer funtzionario gaitu dituen sinadura elektronikoa erabiltzeko, baldin eta pertsonak baliabide elektronikoen bidez identifikatu edo legezatzeko beharra badute eta ez badituzte eskura baliabide horiek.

2.– Aurreko paragrafoan xedatutakoa eraginkorra izan dadin, gaitutako funtzionarioen aurrean identifikatu eta berriaz beren adostasuna eman behar dute pertsonak. Xede horietarako, administrazioak eredu normalizatuak jarriko ditu pertsonen eskura.

3.– Euskarri informatiko bera dute gaitutako funtzionarioen erregistroak eta ordezkariaren erregistro elektronikokoak.

7. artikulua.– Ahalordearen edukia.

1.– Berriaz emandako ahalari dagozkion izapidetzeetan eta prozeduratan baino ez dira eraginkorrak izango Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko ordezkariaren erregistro elektronikokoan inskribatutako ahalordeak. Halaber, dagozkien ereduaren bidez esleituta egon beharko dute eraginkorrak izateko. Ordezkariak orokorra bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren zerbitzuen katalogoko prozeduren izapidetze guztietan izango du eragina ahalordeak.

2.– Egoitza elektronikokoan argitaratuko dira zerbitzuen katalogoa eta ahalorde bidez egin daitezkeen izapidetze eta prozeduren zerrenda.

3.– Edonola ere, jakinarazpenak hartzeko ahalordea ematen bada, ahalorde-emaileak baimena emango dio ordezkariari administrazioaren jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez jasotzeko, baldin eta jakinarazpena ordezkariari egiten bazaio.

8. artikulua.– Inskribatutako ahalordeari aldaketak egitea.

1.– Ordezkarien erregistro elektronikoa egiletsi eta inskribatutako ordezkari alda dezake ahalorde-emaileak. Ordezkariek egin ditzakeen izapideak eta haiek egiteko epeak alda daitezke, bai eta biak batera aldatu ere. Ezin dira aldatu ahalordean utzi diren prozedurak, ordezkari alda-mota edo ahalordua. Beste ordezkari alda bat formalizatzeko, lehenik indarrean dagoena ezeztatu beharko da.

2.– Ordezkari aldatzeko, ahalorde-emailearen identifikazioa ziurtatu behar da, eta ez da beharrezkoa izango administrazioak inolako balioztatzerik egitea.

9. artikulua.– Ahalordetzaren inskripzioa indargabetzea.

1.– Ordezkarien erregistro elektronikoa inskribatutako ordezkari indargabe daiteke, baldin eta:

- a) Indarraldia igarotzen bada.
- b) Emandako ahalordea baliogabetzen bada ahalorde-emaileak.
- c) Ahalordunak ahalordeari uko egiten badio.

2.– Ahalordearen inskripzioaren indargabetzeak eragina izango du erregistroan inskribatzen denetik aurrera.

3.– Ahalordearen inskripzioa honela indargabe daiteke:

- a) Ahalorde-emaile alda edo ahalordua administrazioaren bulegoetan azalduz.
- b) Notarioak legez ziurtatutako sinadura duen dokumentu publiko bat edo dokumentu pribatu bat aurkeztuz administrazioan.

Halaber, a) eta b) puntuetako kasuetan, baimendutako funtzionarioek indargabetuko dute ordezkari alda erregistroan, eta indargabetzeak ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuko dute.

c) Internet bidez, otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan, Administrazio Elektronikoari buruzkoan, aurreikusitako identifikazio- eta baimentze-sistemetakoa bat erabiliz. Kasu horretan, automatikoki indargabetuko da ordezkari alda.

4.– Edozein unetan, ahalordunak uko egin diezaiolke ahalordeari, baldin eta ziurtatzen bada ordezkari alda bere ukoa jakinarazi diola administrazioan aurkeztu baino lehen. Ordezkari alda ez da erregistroan indargabetuko ordezkari alda ukoa jakinarazi arte.

10. artikulua.– Ordezkarien erregistro elektronikoa kudeaketa.

1.– Administrazio Elektronikoko zuzendaritza eskudunak kudeatuko ditu ordezkari erregistro elektronikoa erabiltzaile izateko baimenak. Era berean, agindu honen 6. artikulua aipatzen dituen gaitutako funtzionarioen zerrenda eguneratua izango du.

2.– Ahalordean emandako izapide alda edo prozeduretan eskumena duten organoek egiaztatuko dute egoitza elektronikoko inskripzio-, indargabetze- alda uko-ereduak betetzen direla, eta ordezkari erregistro elektronikoa inskribatzen direla. Era berean, baimena emango diete funtzionarioei, gaitutako erakundeetan inskribatu daitezkeen, agindu honen 5. artikulua 4. paragrafoan araututakoaren arabera.

11. artikulua.– Datu pertsonalen babesa.

1.– Ahalorde-emailea edo ahalduna pertsona fisikoak badira, pertsona fisiko horiek baimena eman behar dute beren datuen tratamendu informatikoa egin dadin ordezkarien erregistro elektronikoan. 15/1999 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoak, 6. artikuluan arautzen duena betetzeko jokatu da horrela. Ez da beharrezkoa izango baimen hori ahalorde bakoitzean ematea. Baimena baliabide elektronikoen bidez emango da eta aipatu 15/1999 Lege Organikoan ezarritako datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak beteko ditu.

2.– Izaera pertsonaleko «Ordezkarien erregistro elektronikoa» datu-fitxategia sortuko da. Administrazio Elektronikoko zuzendaritza eskudunak izango da fitxategi horren titularra. Fitxategiaren edukia agindu honen eranskinean adierazten da.

12. artikulua.– Erabilera-gida eta informazio osagarria.

1.– Ordezkarien erregistro elektronikoaren erabilera-gida argitaratuko da <https://www.euskadi.net> egoitza elektronikoan. Era berean, ahalordea inskribatzeko, ahalorde-inskripzioa indargabetzeko eta aldatzeko ereduak argitaratuko dira.

2.– Ordezkarien erregistro elektronikoan inskribatzeko bete behar diren ereduak herritarren arretarako bulegoetan nahiz <https://www.euskadi.net> egoitza elektronikoan lor daitezke.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 14a.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

ERANSKINA

DATU PERTSONALEN FITXATEGIA

- a) Fitxategiaren izena: Ordezkarien erregistro elektronikoa.
- b) Fitxategiaren xedea: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan baliabide elektronikoen bidez jarduteko eman diren ahalordeen datuak kudeatzea eta kontrolatzea.
- c) Datuak biltzeko prozedura: Ahalordeak erregistratzeko, ahalordeei uko egiteko eta ahalordeak ezeztatzeko eskaera-inprimakiak.
- d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:
Identifikazio-datuak: izena, abizenak, eta ahalorde-emailearen eta ahaldunaren IFZ/AIZ.
- e) Fitxategiaren segurtasun-maila: oinarrizkoa.
- f) Datuen jatorria: pertsona interesduna.
- g) Datuak biltzeko euskarria: papera eta euskarri informatikoa.
- h) Zer pertsonari edo talderi buruzko datuak lortu nahi diren:
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan baliabide elektronikoen bidez jarduten duten ahalorde-emaileak eta ahaldunak.
- i) Datuen lagapenak eta komunikazioak: ez daude.
- j) Organo arduraduna: Administrazio Elektronikoko zuzendaritza eskuduna.
- k) Zer organoren aurrean erabil daitezkeen datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak: Administrazio Elektronikoko sail eskuduna.